



Erregulazio zerbitzuak

Helburua: Jardueraren helburua, ikasleek erregulazio-zerbitzu mota ezberdinak ezagutzea eta horien degradazioarekin lotutako arriskuak prebenitzeko metodoak bereizten ikastea da.

Materialak: Ikasgelako jarduera. Bertan, hainbat erregulazio zerbitzu higitzeak dituen ondorio kaltegarrien irudiak edo bideoak erakusten dira. Sakanen irudiak, uholdeal, berotegiu efektua, kutsatutako ibaiak, abeltzaintza intentsiboa, etab. Horrela, ikasleek irtenbiderik onena aurkitu beharko dute hondamendi mota bakoitzerako (maldan dauden eremuen basoberritzea, ibaiertzen berreskurapena, abeltzaintza estentsiboa, etab.).

Aplikaziorako esteka:

<https://app.wizer.me/preview/ZY8DV0>

Garapena: Ikasleek erregulazio-zerbitzu ekosistemikoen degradazioaren inguruan egungo arazoak konpontzeko gaitasuna garatzea du helburu jarduera honek. Horretarako bi fasetan banatuko da:

1. Basoek eskeintzen dizkiguten zerbitzu ekosistemikoen garrantzia ulertzeko, zerbitzu horietako batzuk azaltzen dituen bideo bat bistaratuko da. (Bideoa lehen zehaztutako aplikazioaren barruan dago esekita)
2. Jarraian, ikasleek bete beharreko galdetegi bat egongo da, erregulazio-zerbitzuekin eta zerbitzu horiek degradatzearen ondorioz sortzen diren ondorio kaltegarriekin lotuta. Horretarako, hondamendi edo egoera kaltegarrien irudiak edo bideoak erakutsiko dira, hala nola, uholdeak, lurraren higaduraren irudiak, berotegi-efektuko gasen kalteak, etab. Horrela, ikasleek 3 erantzunetatik zuzena dena aukeratu beharko dute.

Testa osatu ondoren, ikasleek erantzunak besteekin partekatu beharko dituzte.